



## AKTA/ ACTA

Espediente zbk.	Kide Anitzeko Organoa
OSB/2024/7	Osoko bilkura
BILKURA EGITEKO DATUAK	

### Deialdi mota:

Arrunta

### Data:

2024ko azaroaren 26

### Iraupena:

19:00tik 19:30ra arte.

### Lekua:

Udalbatza aretoa

### Lehendakaria:

ENETZ EZENARRO ARRIOLA

### Idazkaria:

NEREA ETXARRI UBEDA

BILKURARA BERTARATZEA		
Identifikazio zenbakia	Izen-abizenak	Bertaratuta
72581191E	Amaia Urrea Mardaraz	BAI
72579288M	Borja Rodriguez Barreras	BAI
15378752D	Dorleta Lazarobaster Arakistain	EZ
15386270Y	ENETZ EZENARRO ARRIOLA	BAI
15391365H	Nerea Isasi Bedayo	BAI
15375878X	Olatz Bizkarguenaga Iñarraiaregui	BAI
15394255X	Sonia Garcia Raposo	BAI

### Ez etortzeko aurkeztuko aitzakiak:

1. Dorleta

Lazarobaster

Arakistain:

«Lanean zegoen»

Idazkariak organoa balioz eratu dela egiaztatu ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera





eman dio, eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu ditu.

<b>A) ERABAKI ZATIA</b>	
<b>Aurreko bilkuraren aktaren onarpena</b>	
<b>Alde/ Favorable</b>	<b>Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna</b>

### Akordioa

2024ko Urriaren 29ko bilkurako akta ahobatez onartzen da.

<b>30/2024 espedientea. Aurrekontua egitea eta onartzea</b>	
<b>Alde/ Favorable</b>	<b>Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna</b>

### Egitateak eta zuzenbideko oinarriak

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontua onartzea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio.

Espedientea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan jasotako xedapenen arabera izapidetu behar da.

Aurrekontua, gainera, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari egokitu behar zaio, hau da, egiturazko oreka- edo superabit-egoerari.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Aurrekontu Orokorra, ekonomia- eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean toki-erakundeek egin beharreko jarduera ekonomikoaren zuzendaritza-programa osatzen duten erabaki guztien adierazpen formal dokumentala da, finantza- eta kontabilitate-terminoetan, eta, aldi berean, udal-baliabideen administrazio egokia kontrolatzeko tresna da.

Aurrekontu Orokorra finantza-orekaren, unibertsaltasunaren, afektaziorik ezaren eta osotasunaren printzipioak errespetatuz egin dela kontuan hartuta, aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparruan onartu eta gauzatu beharko dira, Europako araudiarekin bat etorriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 5. artikulua xedatzen duen bezala.

Udal honen Aurrekontu Orokorra Udalaren Aurrekontuak bakarrik osatzen duela kontuan hartuta, udal antolakunde honetan ez baitago erakunde autonomorik, ezta sozietate publikorik ere.

Aurrekontu Orokorraren proiektuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen

### Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281





Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan eskatutako dokumentazioa jasotzen du.

Aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 7. artikuluan araututakoaren arabera egin da, kontzeptu guztiengatik hurrengo aurrekontu-ekitaldian likidatzea aurreikusten diren finantza-baliabideen zenbatekoa jasoz.

Gastuen egoera-orria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da.

Aurrekontuak ez du hasierako defizitik, eta eragiketa arruntengatik sarrerek izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatik amortizazio-gastuak gainditzen dituzte.

Aurrekontuan, Aurrekontua Betearazteko Araua jasota dago, aurrekontu-arloko xedapen orokorrak Udal honen antolaketara eta zirkunstantzietara egokitzen dituen, bai eta behar bezala kudeatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk ere.

Aurrekontu Orokorra, beraz, behar bezala osatuta dago, eranskin guztiekin eta nahitaezko dokumentazioarekin, eta Udal Idazkari - Kontuhartzaitzak aldeko txostena eman du.

Aurrekontu Orokorra onartzeko prozedurak bat etorri behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14. eta 15. artikuluetan araututakoarekin.

Kontuan hartuz Aurrekontu Orokorra onartzeko erabakia Osoko Bilkurari dagokiola gehiengo soilez, eta jendaurrean jarri behar dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki bidez, hamabost egun baliodunez.

Erreklamazioak aurkezteko, interesduntzat hartuko dira abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Erreklamazioak gehienez ere hilabeteko epean ebatzi beharko dira.

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Behin betiko onarpena abenduaren 31 baino lehen egin behar du Udalbatzak, gehiengo soilez.

Udaleko kontu-hartzaitzaren txostenekin bat etorritz, Antolaketako Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Alkateak 2025eko aurreontuaren ilso nagusiaz azaltzen ditu. Nerea Isasik, honen aurrean dio EAJk hiru eskaera egin zizkiola Udal Gobernuari eta hirurei nolabaiteko erantzuna eman zaiela. Esaterako, herri erdian komun publikoen beharra azalduta, partida berria barneratu da horri aurre egiteko. Bestetik, osakidetzarekin harremanetan dago udal gobernu kontsultoria lekuz aldatu eta gimasioa handitzeko.





Azkenik, bidegorriaren jarraipena egiten ari da.

Eztabaida amaituta, bozkatu ondoren, Udaltzarrak ahobatez honakoa erabakitzen du:

### **Erabakitzen da:**

**Lehenengoa.**- Aurrekontuarekin batera doan 2025eko ekitaldirako aurrekontu orokorraren proiektua onartzea. Honako agiri hauek dituena:

A) Azalpen-memoria bat, aurrekontu orokorraren edukari buruzkoa. Bertan, aurrekoen aldean aurrekontuek egiten dituzten aldaketak aztertuko dira, aldaketa esanguratsuenak azpimarratuz, bai eta aurrekontu bakoitzaren eta Aurrekontuak Betearazteko Arauan jasotako gainerako neurrien edukia ere.

B) Tokiko Sektore Publikoaren aurrekontu finkatua.

C) Aurrekontua Betearazteko Araua; besteak beste, bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak jasotzen dituena, eta erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkiona.

D) Txosten ekonomiko-finantzarioa, aurreikusitako diru-sarrerak eta kreditu-eragiketak ebaluatzeko erabilitako oinarriak, eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna eta, ondorioz, aurrekontuaren benetako nibelazioa azaltzen dituena. Era berean, txostenak aztertuko du, modu independentean, konpromiso-kredituak finantzatzeko udal-baliabideen nahikotasuna.

**Bigarrena.**- Udalaren aurrekontu-proiektua onartzea, honako hauek jasotzen dituena:

1.- Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoen gutxi gorabeherako diru-sarreren egoera-orria.

2.- Ordainketa- eta konpromiso-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren kredituen gastuen egoera-orria.

3.- Aurrekontuaren edukari eta aurrekoarekin alderatuta aurkezten dituen aldaketa nagusiei buruzko azalpen-memoria, bai eta aurrekontua egiteko hartutako irizpideei buruzkoa ere.

4.- Onartutako eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskina. Erakundeak likidatu gabeko aurrekontuetarako aurrekontua aurkezteko datan izaera horrekin erabilitakoak jasotzen ditu, dagozkien urteetarako bereizita, eta egun berean indarrean dauden kontsignazio guztiak jasotzen ditu.

5.- Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina.

6.- Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina, aurrekontuan kapitulu horietarako aurreikusitako gastuak eta diru-laguntzen kontzeptuak arautzeko prozedura zehaztuta.

7.- Langileen eranskina, aurrekontu-plantilla osatzen duten lanpostuen zerrendarekin, 11/2022 legea, abenduaren 1ekoa, euskal enplegu publikoari buruzkoa eta hura garatzeko





xedapenen arabera egina.

**Hirugarrena.-** Erabakia jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkiak jarriz, interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten.

**Laugarrena.-** Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

<b>Azaroak 25eko adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta</b>	
<b>Alde/ Favorable</b>	<b>Bozketaren mota/ Tipo de votación:</b> Ahobatezkotasuna

## **AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA**

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta Udalak gaitzespen irmoa adierazten dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen baitira. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek, emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezereztu egiten du, eta oraindik haratago doa, lege-aldaketen biktimak gizonak direlako ustea sustatuz, berdintasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde, – bai esparru legalean, eta politikoan, bai sozialean-, gaur egungo joera neomachista hasten ari da, batez ere mutil eta gizon gazteengan eta adin ertainekoetan eta eremu digitalean, bereziki. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misogino eta berdintasunaren aurkako mezu ugari daude. Ondorioz, "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela eta berdintasun-politikak urrunegi iritsi direla bezalako mezuak jasotzen ari dira gazteak.

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena. Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako mehatxu gero eta handiagoez eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitalean.





Hori guztia kontuan hartuta, xxxxx Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezereztan duen edozein erreakzio matxistaren aurrean, tokiko eragile guztiekin lan eginez, mezu ukatzaileak indargabetzeko eta tokiko bizitzan barneratzeko eta halakoak sortuz: partaidetza-mahaiak, zurrumurru misoginoei eta mezu ukatzaileei aurre egiteko tokiko sareak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak...
- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke, batik bat, bitarteko digitalen bidez.
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- Berdinsareatik, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko.

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat herritan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko, horien negazionismoa eta ezereztea barne.

<b>Euskararen eguna dela eta adierazpen instituzionala</b>	
<b>Alde/ Favorable</b>	<b>Bozketa mota/ Tipo de votación:</b> Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

### **ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO**

2024ko Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, Mendaroko Udalak honako adierazpen hau onartu du: Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak garela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula. Euskara bi



hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatiboz bizi daitekeen guneeetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikotan dagoela adierazi nahi dugu. Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu. Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian. Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnaguneek eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatzeko eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoiak indartzeko. Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.

<b>B) KONTROL-JARDUERA</b>
----------------------------

<b>Alkatetza ebazpenak</b>
----------------------------

285-309 bitarteko Alkatetza ebazpenen berri ematen da

<b>C) GALDE-ESKEAK</b>
------------------------

Ez dago gairik/ No hay asuntos
--------------------------------

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO  
ELECTRÓNICAMENTE**

